

## Xedapen Orokorrak

### LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

#### Zk-4106

146/2004 DEKRETUA, uztailaren 13koa, Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko dena.

Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeak natur baliabideak antolatzeko planak taxutzen ditu, inguru bat parke natural deklaratu aurreko plangintzarako tresna gisa.

Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskatuta, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartu zen apirilaren 26ko 168/1994 Dekretu bidez, eta ondoren, apirilaren 26ko 169/1994 Dekretu bidez Parke Natural deklaratu zen inguru hori.

Ataungo Udalak hainbat ekimen turistikoko sustatu nahi ditu Aralarko Parke Naturalaren eremuan Ataun aldea biziberritzeko asmoarekin eta betiere bere inguru naturalarekiko errespetu eta integrazio osoz.

Begietsitako ekimena bat dator Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen bidez parke naturalentzako aldarrikatu diren helburu eta printzipioekin. Ataungo Udalaren proposamena zaintza aldetik orekatua eta iraunkorra da, eta era berean, hedatzeko aukera mugatuak dituen eskualde baten garapen ekonomikoa sustatzen du.

Horretarako ordea, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana, apirilaren 26ko 168/1994 Dekretu bidez behin betiko onartu zena, aldatu beharra dago.

16/1994 Legearen 2. artikuluko 5. idatz-zatian jasota dago natur baliabideak antolatzeko planak aldatzeko jarraitu beharreko prozedura, eta aldaketa onartzeko 7. artikuluan ezarritako prozedurara zuzentzen gaitu.

Prozedura horri jarraituz, hasiera batean aldaketa 2000ko irailaren 8ko Agindu bidez onartu zen eta aldi baterako, 2001eko maiatzaren 29ko Agindu bidez, biak Nekazaritza eta Arrantza sailburuak emanak. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketari buruzko aurretiazko txostena egin eta interesatuei entzunaldi tramitea ere eskaini zitzaizen; aldaketa jendaurrean jarri zen eta kontsulta egin zitzaizen eragina jasan zeza-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

#### Nº-4106

DECRETO 146/2004, de 13 de julio, de modificación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Aralar.

La Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, configura los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales como instrumentos de planificación previa a la declaración de una zona como Parque Natural.

En este sentido, a instancia del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, se aprobó mediante Decreto 168/1994, de 26 de abril, el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Aralar, procediéndose mediante Decreto 169/1994, de 26 de abril, a su declaración como Parque Natural.

El Ayuntamiento de Ataun pretende promover una serie de iniciativas de carácter turístico a establecer en el ámbito del Parque Natural de Aralar, planteadas con el objetivo de revitalizar el área de Ataun y desde el total respeto e integración en su entorno natural.

La iniciativa planteada se ajusta a los objetivos y principios que para los Parques Naturales se proclaman desde la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. La propuesta del Ayuntamiento de Ataun es equilibrada y sostenible desde una óptica conservadora, a la vez que promueve el desarrollo económico de una comarca limitada en sus posibilidades de expansión.

Para ello sin embargo, se hace necesaria la modificación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Aralar, aprobado definitivamente por Decreto 168/1994, de 26 de abril.

El artículo 5 apartado 2 de la Ley 16/1994, recoge el procedimiento a seguir cuando los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales son objeto de modificación, remitiéndose para ello al procedimiento establecido para su aprobación fijado en el artículo 7.

De conformidad con dicho procedimiento, la modificación fue aprobada inicialmente mediante Orden de 8 de septiembre de 2000 y provisionalmente mediante Orden de 29 de mayo de 2001, ambas del Consejero de Agricultura y Pesca. Fue asimismo sometida a informe previo de la Diputación Foral de Gipuzkoa y a los trámites de audiencia de las personas interesadas, información pública y consulta a los intereses sociales e

keten gizarteko talde eta erakundeei. Era berean, Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Batzordea-Naturzaintzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak eta Landaberrikeren egin dituzte aginduzko txostenak.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila da eskuduna gai honetan, irailaren 17ko 19/2001 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen dekretua aldatzekoa onartu ondoren, dekretu horretako 14. artikuluko e) idatzatiaz zehaztu egiten baita sail horri dagozkiola, beste jardute-eremu batzuen artean, «baliabide naturalak antolatzea, baso eta natura zaintzeko zerbitzua».

Ondorioz, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko uztailaren 13an izandako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*— Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko agiria onartzea eta dekretu honen eranskin modura argitaratzea planaren zati arauemailean egindako aldaketak eta dagozkion antolamendu-planoak.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko uztailaren 13an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

#### I. ERANSKINA

##### ARALAR ALDEKO NATUR BALIABIDEEN ANTOLAMENDURAKO PLANAREN ALDAKETAK

- 1.— Planaren ondorengo artikulua aldatu dira:  
1.1.— 13. artikulua. Jolas-jarduerak. C.— Arauak.

7. idatz-zatia gaineratu da:

7.— Turismo eta jolaserako ostalaritza- eta kirol-instalazioak onartzen dira. Instalazio horiek, ordea, «eki-

instituciones afectadas. Asimismo, han sido evacuados los preceptivos informes del Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza del País Vasco – Naturzaintza, de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y de Landaberri.

El Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente es competente en esta materia a partir de la aprobación del Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, por el que se modifica el Decreto de creación, supresión y modificación de los departamentos del Gobierno Vasco, que en el artículo 14 apartado e) determina que corresponde a este Departamento, entre otras áreas de actuación, la de «Ordenación de los recursos naturales y servicio forestal y de conservación de la naturaleza».

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 13 de julio de 2004,

#### DISPONGO:

*Artículo único.*— Aprobar el documento de Modificación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Aralar, y publicar como Anexos a este Decreto las modificaciones correspondientes a la parte normativa del mismo y los planos de ordenación correspondientes.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de julio de 2004.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio  
y Medio Ambiente,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

#### ANEXO I

##### MODIFICACIONES AL PLAN DE ORDENACIÓN DE LOS RECURSOS NATURALES DEL ÁREA DE ARALAR

- 1.— Se modifican los siguientes artículos del Plan:  
1.1.—Artículo 13.— Actividades recreativas. C.— Normas.

Se añade el apartado 7:

7.— Se admiten las instalaciones hosteleras y deportivas con fines turístico-recreativos, que se ubicarán ex-

pamendu eta zerbitzu», «landazabal» eta «hirilur eta azpiegitura»ko barrutietan soilik kokatuko dira eta eraikuntza- eta azpiegitura-jarduerei buruz 16. artikuluan ezartzen dena errespetatuko dute.

1.2.– 16. artikulua. Eraikuntza- eta azpiegitura-jarduerak. B.–Arauk.

a) 10. idatz-zatia ondoko idatz-zatiarekin ordezkatu da:

10.– Debekatuta daude lehen sektoreari lotzen ez zaizkion egoitza-erabilerako eraikin berriak «hirilur eta azpiegitura» gisa definitutako barrutietatik kanpo. Debeku horretan ez dira barne hartzen baimendutako beste erabilera batzuetarako lagungarriak diren egoitza-erabilerara zuzendutako eraikinak.

«Ekipamendu eta zerbitzuen» barrutian ezartzen diren turismo eta jolaserako ostalaritza- eta kirol-instalazioek ondoko arauak beteko dituzte:

– Naturgunean integratuko dira eta horretarako material, kolore eta egitura egokiak erabiliko dira.

– Borda edo etxola moduko egituretan oinarritzen diren ostalaritza-instalazioak soilik baimenduko dira, betiere sakabanaturik ezarrita. Debekatuta daude atxikitako eraikinak.

– Eraikinen gehieneko profila solairu batekoa eta estalkipe batekoa da (BS+EP) eta gailurraren gehieneko altuera 6,00 metrokoa izango da.

– Gaur egun dagoen zuhaitzia errespetatu egingo da. Baso-garbitzeak instalazioen segurtasunerako ezinbestekoak direnean soilik baimenduko dira eta, hala gertatuz gero, balio gutxien duten aleak moztuko dira.

– Ez da igerileku edo kirol-egiturak eraikitzea baimenduko, baldin eta beren ezaugarri, bolumen edo formagatik kokatu behar diren naturgunearekin nabarmenki bateragarriak ez baldin badira.

– Parkeko organo kudeatzaileak onartu beharko dituzte proiektuak.

«Landazabal» eta «hirilur eta azpiegitura» barrutietan ostalaritza- eta kirol-instalazioak dagokion udalerriko arau subsidiarioetan ezarritakoari egokituko zaizkio.

b) Artikulu honi beste bi idatz-zati erantsi zaizkio:

14.– «Landazabal» eta «hirilur eta azpiegitura» barrutietan soilik baimentzen da kutsatzaileak ez diren industriak ezartzea, betiere dagozkien arau subsidiarioetan ezartzen denaren arabera. Proiektuek Parkearen Organo Kudeatzailearen baimena izan beharko dute, ondorio horretarako plan berezi bat tramitatu eta onartuta dutenean salbu. Plan bereziak, hala badagokio, Aralar Parke Naturalaren Patronatuaren aldeko iritzia jasoko beharko du hasierako onepenaren aurretik.

clusivamente en las zonas de «equipamientos y servicios», de «campiña» y «urbana e infraestructuras» y respetarán lo establecido en el artículo 16 sobre actividades constructivas e infraestructuras.

1.2.– Artículo 16.– Actividades constructivas e infraestructuras. B.– Normas.

a) Se sustituye el apartado 10 por el siguiente:

10.– Quedan prohibidas las nuevas construcciones con uso residencial no vinculado al sector primario fuera de la zona definida como «Urbana e Infraestructuras». No se incluirán en esta prohibición las construcciones destinadas a uso residencial de carácter auxiliar de otros usos autorizados.

Las instalaciones hosteleras y deportivas con fines turístico-recreativos que se implanten en la zona de «equipamientos y servicios», se adecuarán a las siguientes normas:

– Se integrarán en el medio natural, para lo que se utilizarán materiales, colores y estructuras apropiadas.

– Sólo se permiten instalaciones hosteleras basadas en estructuras tipo bordas o chabolas implantadas de forma aislada. Quedan prohibidas las construcciones adosadas.

– El perfil máximo de las edificaciones consistirá en una planta y bajocubierta (PB+BC), con una altura máxima de cumbrera de 6,00 m.

– Se respetará la masa arbolada existente. Sólo excepcionalmente se permitirán los aclareos cuando sean estrictamente indispensables para la seguridad de las instalaciones, sacrificándose en este caso los ejemplares de menor valor.

– No se permitirá la construcción de piscinas ni estructuras deportivas que por sus características, volumen o formas resulten manifiestamente incompatibles con el medio natural en el que se hayan de ubicar.

– Los proyectos deberán ser aprobados por el Organismo Gestor del Parque.

En las zonas de «campiña» y «urbana e infraestructuras» las instalaciones hosteleras y deportivas se adecuarán a lo establecido en las Normas Subsidiarias del municipio afectado.

b) Se añaden dos nuevos apartados a este artículo:

14.– Queda permitido el establecimiento de industrias no contaminantes, exclusivamente en las zonas de campiña y urbana e infraestructuras, de conformidad con lo que se establezca en las respectivas Normas Subsidiarias. Los proyectos se someterán a la autorización del Organismo Gestor del Parque, salvo que vengán precedidos de la tramitación y aprobación de un Plan Especial a tal efecto. El Plan Especial, en su caso, será sometido, previamente a su aprobación inicial, a informe del Patronato del Parque Natural de Aralar.

15.— Ez da eraikuntza-erabilerari lotzen zaion inolako isurketa kutsatzailerik baimenduko. Bere erabilera dela-eta saneamendu-sistema behar duten eraikin guztiek izango dute sistema egokia (hobi septikoa edo antzekoa), sare hidrolögikora edo lurzorura isurketa kutsatzailerik gerta ez dadin.

1.3.— 18. artikulua:— Lurzoruaren zainketa. B.—Araukak.

1. idatz-zatia ondoko idatz-zatiarekin ordezkatu da:

1.— Debekaturik egongo da lurzorua oraingo egoera ezertan aldatzea, baimendutako jardueretarako —abeltzaintza, nekazaritza, basogintza, eraikuntza, azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak— beharrezkoak diren aldaketak salbuetsita. Parkearen organo kudeatzaileak beste eginera batzuk baimendu ahal izango ditu, interes orokorrak horrela eskatzen duenean: zundaketak, zientzi ikerketak, eta abar.

2.— Gaur egun dauden barrutiei beste barruti bat gaineratu zaie:

30 bis artikulua: Ekipamendu eta zerbitzuen barrutia.

A) Definizioa.

Naturgunean integraturik eta gaur egun dauden natur baliabide eta balioen kontserbazioarekin bateragarriak diren ostalaritza- eta jolas-azpiegiturak kokatzera bereziki zuzentzen den barrutia.

B) Jarraibideak.

1.— Parke naturalaren balioak ezagutu daitezten eta balio horietaz goza dadin bultzatzea, ingurunean integraturik dagoen turismo- eta jolas-eskaintzaren bitartez.

2.— Parke naturalaren eragin sozio-ekonomikoaren barruan dauden eskualde eta herriguneen garapen ekonomikoa sustatzea.

3.— Eremuko turismo- eta jolas-jarduera barrutiko natur baliabide eta balioen kontserbazioa kaltetu gabe garatuko da.

C) Araudia.

1.— Barruti horietan ondoko erabilerak baimendu dira:

– Bizitegi-erabilera, baimendutako beste erabilera batzuen erabilera osagarri gisa.

– Naturgunean integratzen den ostalaritza-erabilera.

– Kirol-jarduera, baimendutako beste erabilera batzuen erabilera osagarri gisa eta luraren natur baldintzen aldaketa handia eskatzen ez duten modalitateetako erabilera nagusi gisa, betiere bertan ezartzea bidezkoztat hartzen denean.

– Jolas- eta gizarte-erabilera, kirol-erabilerarako ezarritako baldintza beretan.

15.— No se permitirá la realización de ningún tipo de vertido contaminante asociado al uso edificatorio. Toda edificación que en función de su uso así lo precise contará con un sistema de saneamiento adecuado (fosa séptica o similar), que impida aportes contaminantes a la red hidrológica y al suelo.

1.3.— Artículo 18.— Protección del suelo. B.— Normas.

Se sustituye el apartado 1 por el siguiente:

1.— Se prohíbe cualquier modificación del estado actual del suelo, salvo las necesarias para las prácticas autorizadas: ganaderas, agrícolas, forestales, de edificación o infraestructuras, o de equipamientos y servicios. El Órgano Gestor del Parque podrá autorizar otras prácticas cuando el interés general así lo requiera: sondeos, investigación científica, etc.

2.— Se añade una nueva zona a las existentes:

Artículo 30 bis.— Zona de equipamiento y servicios.

A) Definición.

Zona especialmente destinada a la ubicación de infraestructuras hosteleras y recreativas integradas en el medio natural y compatibles con la conservación de los recursos y valores naturales existentes.

B) Directrices.

1.— Favorecer el conocimiento y disfrute de los valores naturales del Parque Natural con una oferta turística-recreativa integrada en su entorno.

2.— Promocionar el desarrollo económico de las comarcas y núcleos integrados en la Zona de Influencia socioeconómica del Parque Natural.

3.— El desarrollo turístico-recreativo de la zona se realizará sin perjuicio de la conservación de los valores y recursos naturales de la zona.

C) Normativa.

1.— En estas zonas se permiten los siguientes usos:

– el uso residencial como uso auxiliar de otros usos autorizados.

– el hostelero integrado en el medio natural.

– el uso deportivo, como uso auxiliar de otros usos autorizados y como uso principal en aquellas modalidades que no exijan una alteración de las condiciones naturales del terreno significativa y cuando su implantación se considere oportuna.

– Recreativo-social, en las mismas condiciones que para el uso deportivo.

– Zerbitzu-azpiegiturak: ur-hornidura, hondakin-uren arazketa, telefonia eta erregaien andelak, baimendutako beste erabilera batzuen erabilera osagarri gisa.

– Merkataritza-erabilera, baimendutako beste erabilera batzuen erabilera osagarri gisa.

– Bulego-erabilera, erabilera osagarri gisa.

– Lur gaineko aparkalekua, baimendutako beste erabilera batzuen erabilera osagarri gisa, betiere aparkalekua ezartzeak lur naturalaren aldaketa handia eskatzen ez badu.

2.– Erabilera horiek definitzeko, barruti honetarako plan berezia idatziko da. Plan berezi hori Lurzoruaren Legearen arabera tramitatuko da eta hasierako onepenaren aurretik Aralarko Parke Naturalaren Patronatuak txostena egin beharko du.

## II. ERANSKINA

### ANTOLAMENDURAKO PLANOA

Apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuan antolamendu mapari dagokion II. eranskinaren ordezkari ondorengo mapa erantsi da; bertan, Erremedio eta Imatzenea eremuak landazabal barruti gisa kalifikatu dira eta Marumendi-ko eremua ekipamendu eta azpiegitura barruti berrian sartu da.

– Infraestructura de servicios: abastecimiento de agua, depuración de aguas residuales, telefonía y depósitos de combustible, como uso auxiliar de otros usos autorizados.

– Comercio, como uso auxiliar de otros usos autorizados.

– Oficinas, como uso auxiliar.

– Aparcamiento en superficie como uso auxiliar de otros usos autorizados y sin que su implantación conlleve una alteración significativa del terreno natural.

2.– Para la definición de estos usos se redactará un Plan Especial de esta zona. Dicho Plan Especial se tramitará de acuerdo con la Ley del Suelo e incluirá, con carácter previo a la aprobación inicial un informe del Patronato del Parque Natural.









## ANEXO II

### PLANO DE ORDENACIÓN

Se sustituye en el Anexo II del Decreto 168/1994, de 26 de abril, el mapa de ordenación por el siguiente, en el que las zonas de Erremedio e Imatzenea son calificadas como zona de campiña y la zona de Marumendi se integra en la nueva zona de equipamientos e infraestructuras.

II. ERASKINA / ANEXO II  
ANTOLAMENDURAKO PLANOA / PLANO DE ORDENACION

ESKALA / ESCALA : 1/25.000

	ERRESERBA BARRUTIA ZONA DE RESERVA
	BABES BARRUTIA ZONA DE PROTECCION
	MENDI BABESLE BARRUTIA ZONA DE MONTE PROTECTOR
	ABELTZANTZA BARRUTIA ZONA GANADERA
	BASOGINTZA BARRUTIA ZONA FORESTAL
	LANDAZABAL BARRUTIA ZONA DE CAMPIÑA
	EKIPAMENDU ETA ZERBITZU BARRUTIA ZONA DE EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS
	HIRILUR ETA AZPIEGITURA BARRUTIA ZONA URBANA E INFRAESTRUCTURAS

----- Parkearen muga / Límite del parque

-+--+ Lurralde Historikoen muga / Limite provincial

-+--+ Udalerri muga / Límite municipal


———— Kurba nagusia / Curva maestra

———— Kurba mehea / Curva fina


..... Ur ibilbideak / Cursos de agua

———— Errepideak / Carreteras

———— Pistak / Pistas



Eskala / Escala: 1/100.000




89-41

89-49

0 250 500 1,000  
m







89-42


89-50

0 250 500 1,000  
m

89-43


89-51





89-44


89-52



89-57

114-1


0 250 500 1,000 m



89-58


114-2

0 250 500 1,000  
m



89-59


114-3




89-60

114-4


114-12






113-16

113-24










114-10

114-18

0 250 500 1,000  
m



114-11

114-19

0 250 500 1,000  
m